

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a / 620. zenbakia

HARRAR
KARRETA
ARRASATE
2003



ORAIN ETA HEMEN: ERGUIN AUZOA /6 • KIROLA: MARKEL BLANCO, EUSKADIKO SELEKZIOAN /10

IRUDIA: AMAIA OVEJERO

GREMIOEN GIDA/24

2002ko martxoaren 8ko egitaraua

Gure eskubidea delako

EGUNA	ORDUA	ZER	NON
Martxoaren 5ean Eguaztena	19:00	Hitzaldia. Toti Martinez de Lezea "Emakumeak Historian"	Osoko bilkuren aretoan
Martxoaren 6an Eguena	21:30	Zinekluba "Sin dejar huella"	Amaia antzokian
Martxoaren 8an Zapatua	10:00 13:00 19:00 20:00	Emakumeen Azoka Bertsolariak Manifestazioa Luncha	Seber Altuben Seber Altuben Osoko bilkuren aretoan
Martxoaren 9an Domeka	19:30	Antzerkia "Ai ama"	Amaia antzokian
Martxoaren 13an Eguena	21:30	Zinekluba "Para todos los gustos"	Amaia antzokian
Martxoaren 20an	19:00	Zinekluba "La pizarra"	Amaia antzokian eguena
Martxoaren 25ean Martitzena	17:00etatik 20:00etara	Ikastaroa "Mujer y ciudad"	Osoko bilkuren aretoan

Emakumeen Kontseilua


 ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARATUSTEAK 03

a r r a s a t e



ARATUSTEAK EGITARAUA

MARTXOAK 4, MARTITZENA

19:00etan,
Arrasate Musikaleko PANCHO VILLA Bandaren KALEJIRA.20:00etatik 21:30ak arte,
LUHARTZ taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.22:30etik aurrera,
LUHARTZ taldearekin DANTZALDIA.23:30ean,
SARDINAREN HILETA.
Segizioak erdialdeko kaleak ibili ondoren,
Herriko Plazan bukatuko du desfilea,
sardina han erretzeko.

HAURRENTZAKO EGITARAUA

17:00etan,
HAUR ANTZERKIA, Amaia Udal Antzokian.
Sambhu taldeak "Clin Clan Clown"
ikuskitzuna eskainiko du.17:00etan,
DETRAKA taldearekin
Kale animazioa.18:00etan,
SAMASIKU Txarangaren
animazioa Herriko Plazan.19:00etan,
Arrasateko Erraldoi eta
Kilikien KALEJIRA.

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu 'Euskaldunon Egunkaria'-kin egin dauena?




GURUZNE ITURRIAGA
Ikaslie

Txarto, oso txarto ikusten dot pasau dana. Oin edozein egunkari hartzen badozu dana erderaz dauketzu, eta *Euskaldunon Egunkaria* zan euskeraz idazten zan egunkari bakarra.



AITOR SARRAOA
Langillie

Euskeraz daukogun egunkari bakarra da, eta egin dauena oso txarto dauela pentsetan jat. Euskaldunok espresetako daukogun medixue zerretan badaue, akabo!




NEKANE LIZARRALDE
Etxekoandrie

Ez dau deretxorik horretarako! Eurek gure dauen dana egitten daue. ETAKin loturie daukiela esatiek ez dauko zentzurik. Frankon denporan baiño txarrau gabitz oin, duda barik.



ANDER SANTIAGO
Langillie

Faxisten ekintza bat da. Frankok burue altxauro baleu, pozik egongo litzake bere oiñordekuekin! Euskal Herri independentie gure dauen edozeiñek ETAKin zerikusixe ei dauko.



IBAN AYESA
Langillie


Oso txarto pentsetan jat. Emuten dau gure kontra egitteko edozerk balixo dauela. Badie bost urte *Egin* zerrau euela, eta hortxe dau, geldi. Kontue da trabak ipiñi eta girue nahastie.



IZARO ZULAIKA
Ikaslie

Adierazpen askatasunaren kontrako erasue da, geure hizkuntzaren kontrako erasue, eta geure hizkuntzaren alde lanien dabitzenondako atzerapausue. Ez dauko iñungo zentzurik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK 'EUSKALDUNON EGUNKARIA'-REKIN ELKARTASUNA

Denok dakigu Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta egunkari horren hainbat arduradun atxilotu eta espetxeratu dituela. Horri guztiari aurka egiteko hainbat ekimen egin dituzte herrian, eta irakurle batek Arrasateko dendari baten ideia txalotu gura izan du: erakuslehoan *Euskaldunon Egunkaria*-ren ale bat jarri du hark.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 14

ZAHARRAK / 17

Martxoaren 8ko ekitaldiak

Datorren astean hasi eta martxoaren 26ra arte, emakumeen aldeko ekitaldiak egingo dituzte.

Pantxoa eta Peio gurean

Gaur, egubakoitza, Lapurdiko Pantxoa eta Peio bikote ezagunak kontzertua emango du.

Valero Feori elkarrizketa

Urte askoan argazkilari lanean ibilitako Valero Feo erretiratua elkarrizketatu dugu.

ASTEKODATUA

6.347.730

EURO INBERTITUKO DITUZTE ERGUIN AUZOAN

6.347.730 euro inbertituko ditu Udalak Erguin auzoa berriro urbanizatzeko. Oro har, auzotarraren bizi kalitatea hobetzea da helburua. Horretarako, auzoa goitik behera txukunduko dute.

BESTEKEKESANA

“ Mezu elektronikoen erabilpena orokortu egin den heinean, komunikazioaren itzalak hurbiltasunaren konfiantza galarazi duelakoan nago. Telefonoak hurbildu egin zituen komunikatzaileak. Faxak berak ere errespetu handiz zaindu zuen igortzaile eta hartzailearen arteko zubia. Mezu elektronikoa, aldiz, hankaz gora jarri ditu begirapenaren gutxieneko arauak. Eta gure helbidera egunero sartzen zaizkigun sudurluzeen kopurua handitzen doa (...) Internet jaio zenean askatasun eta unibertsaltasunaren kontzeptuak erabili genituen hitzetik hortzera, deskubrimenduaren alde onak zirelakoan. Denbora aurrera doan neurrian, ez dakit soro zabalari ateak jartzeko unea ez ote den”

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'EUSKONEWS & MEDIA' / 03-02-21

HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



Euskaltzaleoi, zorionak eta aurrera

Ostegunean, gauekotasunez, Del Olmok bere ekintza kriminala burutu zuen, euskaldunok euskaraz berriak jasotzeko dugun eskubidea urratuz. Arrasaten, euskalgintzak martxan jarri zuen bere plan estrategikoaren lehen fruitua: euskalgintza osatzen duten hamalau elkarten arteko harreman zuzena eta komunikazio bideak. Arratsaldeko bostetan ordezkariek batzarturik, eman beharreko erantzuna prestatzen hasi ziren. Zazpietarako pleno aretoa euskaltzalez bete zuten eta ondoren herriko plazan ehunka pertsona elkartu ginen, *Euskaldunon Egunkariari* elkartasuna adierazteko.

Arrasateko euskalgintzak bat eginik ordu batzutan bi ekitaldi antolatu eta burutu, hurrengo egunerako beste deialdi bat egin, medioetan berriari zabalkunde eman eta Donostiako autobusak antolatu zituen. Arrasateko

Euskararen Plan Estrategikoari esker euskalgintza funtzionatzen hasi da, zorionak. Erantzun bikaina izan duten euskaltzaleei ere zorionak.

Baina hau ezin da izan berotasunean emandako erreakzio huts bat. Honek jarraipena behar du, euskaltzalea bazara badago zer egina eta. Ez nabil lana eta militantzia eskatzen, zure gogoko jardunak direnak euskaraz era antolatuan egin ditzazun animatzera nator. Aisialdia, informatika, hezkuntza, umek, emakume

mundua, komunikabideak edo gazte ekintzak dira besteak beste euskalgintzako erakundeek bideratzen dituzten ekintzak. Egizu zure gustukoa, euskaraz eta herria euskalduntzera lagunduz. Nola? Jarri harremanetan AEDrekin, esan zer den zure gustukoa eta bideratuko diren ekintzetan parte hartu. Zuk erabakitako mailan, antolatzen, parte hartzen, ekintzaren berri ematen... gura duzunean.

“Hau ezin da izan berotasunean emandako erreakzio huts bat, honek jarraipena behar du”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bollnaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura salla



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 1**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- DOMEKA, 2**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 3**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- MARTITZENA, 4**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 5**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 6**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ABAROAK, BATZAR OROKORRA
Martxoaren 13an, Abaroako bazkideek batzar orokorra egingo dute. 17:00etan izango da, joko aretoan.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, martxoaren 6an, *Sin dejar huella* filma emango dute Amaia Udál Antzokian, 21:30ean.

ANDALUZIAR EGUNA
Gaur, egubakoitza, eta bihar, Andaluziako Eguna ospatuko dute Al-Andalus elkartean. Gaur, 19:00etan hasiko dira ekitaldiak eta domeka goizaldera arte iraungo dute.

PANTXOA ETA PEIO
Gaur, egubakoitza, Pantxo eta Peio kontzertua emango dute Amaia Udál Antzokian, 22:30ean. AEK-k antolatu du, Korrika Kulturalaren ekitaldien barruan.

ARRASATE MUSIKAL
Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua emango dute Musika Eskolan, 18:30ean. Martitzenean, Pancho Villa Bandak kalejira egingo du.

1958KO KINTOAK
1958ko kintoak -1937an jaiotakoak- egun handia ospatuko dute martxoaren 15ean. Jose Riviereri deitu (943 79 10 57).

AEDren AGENDA

AED-REN BATZAR OROKORRA
Martxoaren 13an, AEDko bazkideek batzar orokorra egingo dute. 18:30ean egingo dute, AEDko egoitzan.

EKIN-EN BATZAR OROKORRA
Martxoaren 20an, Ekin Emakumeak elkarteko bazkideek batzar orokorra egingo dute. 18:30ean egingo dute, AEDko egoitzan.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


'Playback' jaialdiak, arrakasta handia

Musakolako kiroldgia lepo bete zen IV. Playback Jaialdia ikus- teko. Bi ordu iraun zuen ikuski- zunak eta guztira hamazortzi saio egin zituzten. Kiroldgia bete zuten 1.500 lagunek gogoz txalotu zuten sasi-aktoreen lana, eta muntaia bera aurreko urtekoa baino hobe izan zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kauskaria"



Haginkada, koskada.
—Ze sagar da?
Emongostazu kauskara bat?
—Kauskara dezentia ein ddotza zuen Pitxirriok.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gerra osteko errazionamendua

Gerra osteko errazionamendua jardun dute oraingo astean Eusebio Iñarrak eta Nerea Zubietek. Gose garaia zen eta jatekoa eta beste guztia ere oso kontrolatuta zegoen errazionamendu-liburuxkaren bitartez; horrek beste aldea ekarri zuen: estraperloa, hain zuzen ere.

Aspaldiko kontu horiek aste- buruko gainbegiratuan berres- kuratuko ditugu, hain zuzen ere. Zapatuan eta domekan izan- go duzue entzuteko aukera, bada, 11:00etan hasita.



Melina López eskultorea

Melina López eskulturagileak lortu du Emakume Sailak kale- ratutako beka; hori dela eta, 24 urteko arrasatear hori dagoe- neko buru-belarri dabil apiri- lerako bukatuta eduki gura duen artelana lantzen. Proiektua asmatzerakoan Cerrajera- ko torlojugintzan oinarritu da, lantegi hartan emakume asko zebiltzan-eta lanean. Hala, lan horren nondik norakoak jakin eta Melina bera ezagutu gura baduzue, astelehenean, 10:00etan entzungai.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 20	1°C
MAXIMOA Astelena, 24	16°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,2 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 19	9°C 2°C - l/m²
Eguena, 20	10°C 1°C - l/m²
Egubakoitza, 21	16°C 1°C - l/m²
Zapatua, 22	13°C 7°C 0,2 l/m²
Domeka, 23	16°C 5°C - l/m²
Astelena, 24	16°C 8°C - l/m²
Martitzena, 25	15°C 11°C - l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguediko hamabiak arte: efe- merideak, zozketak, zorian agu- rrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 **MIR**: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**
20:00 **Txortxorien**: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**
19:00 **Planing Prest**: Deiane Arrieta
- ZAPATUA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**: Amaia Diaz de Monasterioguren dietista, Herri Anitza plataforma, Markelñe antzerki taldea...
- DOMEKA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Debagoieneko Industrialdeko akzioak

Orain dela hiru urte, Debagoieneko Industrialdeko kapitala handitzeko Arrasateko Udalak mailegua eman zion Aretxabaletako Udalari. Horrela, Aretxabaletako Udalak Arrasatek emandako diruarekin hartu zuen parte Debagoieneko Industrialdearen kapitalean. Orain, Debagoieneko Industrialdea elkarte eratu dago, eta Arrasateko Udalak Aretxabaletakoari utzitako dirua itzultzea dago aztergai.

Debagoiena Industrialdeak zera proposatu dio Arrasateko Udalari: Aretxabaletako Udalari utzitako dirua akziotan jasotzea. Arrasateko Udalak datorren osoko bilkuran aztertuko du diru hori akziotan hartuko duen edo ez.

Abian da Korrika Txikia

Aurtengo Korrika apirilaren 7an iritsiko da Arrasatera, arratsaldeko seiak aldera. Horrekin batera, Arrasaten Korrika Txikia ere prestatzen hasi dira. Martitzen arratsaldean, Korrikako arduradunek batzarra egin zuten Arrasateko ikastetxeekin. Batzarrean, herriko gaztetxoek egingo duten Korrika Txikiaren gaineko lehen erabakiak hartu zituzten. Esate baterako, dagoeneko erabaki dute gutxi gorabehera zein ibilbide egingo duten.

Korrika Txikiaren gaineko datorren batzarra astelehen egingo dute, Monterronen, 18:30ean.

Julian Letona frantziskotarra hil da

Domekan, bihotzekoak emanda hil zen Julian Letona frantziskotarra, 61 urterekin. Julian Letona Eskoriatzan jaio zen, Marin auzoan. Arantzazu auzoko eta Urbiako artzainen kapilaua zen, eta azken urteotan domekero ematen zuen meza Urbian. Era berean, Ozkabarten (Santo Domingo de la Calzada) 12 urte egin zituen misiolari, eta Arrasateko komentuko zaindari ere izan zen. Goian bego.



Torturaren gaineko berbaldia

AGAKOk antolatuta, Paule Sodupek, Orkatx Gallastegi euskal preso politikoaren amak, berbaldia egin zuen joan den eguen arratsaldean Monterronen. Ertzainek etxean atxilotu zuten Orkatx. Gero, Arkautera eraman zuten. Paule Sodupe- ren esanetan, ertzainek torturatu egin zuten semea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Iratzartzeko ordua

Azkenean, bai, *Euskaldunon Egunkaria* itxi egin dute. Horrez gain, joan den eguazten gauean, otsailak 19, atxilotu zituzten hamar lagunetatik bost espetxera sartu dituzte, beste lau fidantzapean askatu dituzte eta azkena, Pello Zubiria, ospitalean inkomunikatuta dago.

Gertatu dena oso-oso latza da. Aurretik, *Egin, Egin*

Irratia eta *Ardi Beltza*-rekin salatu izan zen bezalaxe, komunikabide bat ixtea oso larria da. Ez dauka justifikaziorik. Eta are lotsagarriagoa da azalpen argirik eman ez izana (eta ez dute emango, hor daude beste adibideak).

Ikaragarria izan da Euskal Herriak eta Arrasatek berak gertaerari eman dion erantzuna. Ez zen gutxiagorako. Baina, orain-

dik lan handia dago egiteko.

Horrez guztiaz gain, berriro agerian gelditu da gorputz polizialek tratatu txarrak emateko joera handia dutela. Martxelo Otamendik berak horixe salatu izanak eraginkortasun handiagoa lortu beharko luke tratatu txarren aurka. Bada ordua!

Ea halako gertaera latzetatik ikasten dugun eta lana gogor egiten dugun, baina ez bakarrik hauteskudeei begira.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

EGUNOTAKO HAIZE GOGORRAK ARAZO ASKO SORTU DITU HERRIAN

Haizeak arazo ugari eragin ditu egunotan. Besteak beste, hainbat errepide moztu behar izan dituzte arbolak jausi direlako eta suhiltzaileek ere nahiko lan izan dute hainbat teilatutako teilak kentzen edo konpontzen. Inguruko basoetan arbola asko jausi dira, baita herrian ere: Monterronen, Zigorrolan eta

Aldain. Argazkiko zuhaitzak ezin izan zion astelehen gaueko haize bortitzari aurre egin. Horrez gain, Munarren eta Grupo San Juanen ere suhiltzaileek lana izan dute. Eraikinetako teilatuetako teilak askatu egin ziren eta horiek kentzeko edo konpontzeko lanean ibili ziren suhiltzaileak. /XABIER URZELAI



Ile apaindegiko
gaiak

Kontzezino 4 - behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Ordutegia:
Asteartetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

HIRIGINTZA/ Erguin auzoaren urbanizazioa

Hastear dago Erguin auzoa berriro urbanizatzeko proiektuaren lehenengo zatia

UBANE MADERA

Laster hasiko dituzte Erguin auzoa berriro urbanizatzeko lanak. Lan handia egin behar dute auzoan; hortaz, zatika egingo dute guztia. Orain, proiektu osoaren hiru zati egingo dituzte. 467.468,13 euroko aurrekontua dute, eta bost hilabeteko epea.

Erguin kalearen hasiera konponduko dute lehenengo lan horietan. Konponketen barruan, kalea zolatuko dute eta espaloiak konponduko dituzte; Erguin eta Jauregibarria kaleak lotzen dituen eskailera ere hobetuko dute; Uriburu kalearen bidegurutzean galtzada-harria ipiniko dute. Izan ere, gune horretan bat egingo dute oinezkoek eta ibilgailuek. Eta galtzada-harriarekin ibilgailuak motelago ibili beharko dira eta, hala, oinezkoek izango dute lehentasuna. Horrez gain, kaleargi berriak ipiniko dituzte eta telefono hariarpean sartuko dute.

PLAZATXOA ERE KONPONDUKO DUTE

Erguin kalean segituz, 5, 7, 9, 11 eta 11 bis atarien aurrean gune libreak utziko dituzte; hala, ibilgailuak aparkatzea oztopatuko dute. Era berean, Uriburu eta Erguin kaleek bat egiten duten lekutik ezin izango da sartu automobileraz Erguineraz. Espaloiak konponduko dituzte, zuhaitz berriak sartuko dituzte eta gune berderen bat sortzeko asmoa ere badute. Horrez gainera, kaleargi berriak ipiniko dituzte eta konponketak egingo dituzte argindarraren sarean eta euri-urak bartzeko sarean.

Bukatzeko, Erguin kalean dagoen plazaratxo hobetzeko obrak egingo dituzte. Besteak beste, jarleku berriak ipintzeaz gainera, umeendako jolastokia ere ipiniko dute.

ADJUDIKATUTA ETA ABIAN

Lehen esan bezala, 467.468,13 euroko aurrekontua dute lanok egiteko, eta bost hilabeteko epea. Canalizaciones Industriales de Gas izeneko enpresak lortu du lan horien adjudikazioa. Orain, kontratua sinatzekotan dira; hortaz, laster hasiko dira lanak egiten.

AUZO OSOA BERRITZEKOTAN

Baina, esan dugun moduan, auzo osoa apurka-apurka berriro urbanizatzeko asmoa du Arrasateko Udalak. Hain zuzen ere, 6.347.730,84 euroko inbertsioa egingo dute guztira. Diru asko izanda, lanak zatika egingo dituzte, Udalaren baliabideen arabera. Horrela, aurtengo aurrekontuan diru partida bat gorde dute Erguin auzorako, eta gauza bera egingo dute datozen urteotan.



ARRASATE PRESS

Auzo osoan egingo dituzte berrikuntza lanak; betiere, zatika, Udalaren baliabideen arabera.

Erguin kalea urbanizatzeko lanen lehenengo zatian kalearen hasiera konponduko dute

Oro har, erguindarren bizi kalitatea hobetzea da proiektu horren asmoa. Horretarako, oinezkoendako eta ibilgailuendako baldintza hobekitzeko ekimenak egingo dituzte: aparkaleku gehiago, oinezkoendako

Auzo osoa apurka-apurka berriro urbanizatzeko asmoa du Arrasateko Udalak

gune gehiago, auzoko zerbitzuak hobetuko dituzte, konponketa orokorrak egingo dituzte...

ESKAILERA MEKANIKOAK

Adibidez, Erguin auzoaren aldaipa handia saihesteko eskailera

Bizi kalitatea hobetzea da asmoa; oinezkoen lehentasuna eman gura diete

mekanikoak ipintzeko asmoa du Udalak. Hain justu ere, bost eskailera mekaniko ipini gura dituzte, Uribarri kaletik Elizalde kale-raino. Horietatik bik Uribarri kalea eta Uriburu kalea lotuko dituzte. Beste bik Uriburu kalea

Industrialde garaiko auzoa

Erguin auzoa Udalatx mendiaren beheko aldean dago, mendiari berari kendutako lursailetan eraikita. Industriaren errenazimendua gertatu zenean sortu zen Erguin, 70eko hamarkadan. Migrazio mugimendu handiak izan ziren garai hartan, eta haiei irtenbidea emateko ahalik eta lasterren eraiki beharra zegoen herrian. Hala sortu zen Erguin, herriko beste auzo askoren moduan. Kasu askotan, eraikinen kalitateak ez ziren oso onak izaten. Eta, jakina, egun ohikoak ditugun zerbitzu asko (berdeguneak, gune libreak, oinezkoendako guneak, jolastokiak...) garai hartan ez zituzten eraikitzen.

Horrez gain, auzoa handituz joan den neurrian, ikusi dute motz geratu direla zirkulazioarekin eta aparkalekuekin lotutako zehaztutako neurriekin; batez

ere, ez zutelako uste aurrera begira automobila horrenbeste erabiliko zenik.

Bestalde, auzo etxebizitzaz eta eraikinez beteta dago; hortaz, orain, auzoaren urbanizazioa eta auzotarren bizi kalitatea hobetu behar da.

Erguingo biztanleei begiratuz gero, 1996an 2.436 biztanle zituen eta 2000n, 2.087. Horrek esan gura du behera egin duela auzotarren kopuruak. Adinaren arabera, berriz, dezente jaitsi da 35-50 urtekoen kopurua; 50-60 urtekoena, berriz, handitu egin da azken hamar urteotan. Hori bai, esan beharra dago, era berean, 18-40 urteko auzotar ugari bizi direla Erguinen.

Etxebizitzak kontuan hartzen baditugu, 1996an, guztira, 840 etxebizitza zuden; horietatik 99, hutsik.

eta Erguin kalea lotuko dituzte; eta bosgarrenak Erguin eta Elizalde kaleak lotuko ditu.

KIROLA EGITEKO LEKUAK

Auzotarren aisialdia ere kontuan hartu dute proiektuan, eta, adibidez, Anboto kalearen amaieran dagoen garajearen teilatua, futbitoan eta eskubaloian jokatzeeko kantxa bat eta mini-basketean jokatzeeko beste bat egiteko asmoa dute, iturri eta guzti. Horrez gainera, Erguingo plazaratxoan egingo duten moduan, Uriburu kalean dagoen plazaratxoan ere umeendako jolastokia ipiniko dute.

ITXURA HOBETU

Eta, horrez guztiaz gainera, oro har, auzoaren itxura berrituko dute goitik behera. Horretarako, adibidez, kaleargiak aldatu eta berriak ipiniko dituzte auzo osoan. Gauza bera egingo dute esku-delekin, eserlekuekin eta zakarrontziekin. Espaloiak ere konponduko dituzte. Eta leku gehienetan telefonia eta argindar hodiak lurpean sartuko dituzte. Gaur egun, hodi eta hari horiek etxebizitzan aurreko aldetik pasatzen dira. Era berean, saneamenduan eta gasifikazioan beharrezko konponketak egingo dituzte. Zuhaitz berriak sartuko dituzte. Eta, zaborrendako edukiontzia ipintzeko ere gordeko dute lekua.

Era berean, Udalak kontuan hartuko du Erguin auzoko etxebizitza askotan igogailuak ipintzeko lanak egiten ari direla edo egingo dituztela. Horrela, igogailuak ipintzeko lekurik ez dagoen guneetan lekua egingo dute.

ZIRKULAZIOAN ALDAKETAK

Eta, jakina, auzoaren bizi kalitatea hobetzeko ezin da alboratu ibilgailuen zirkulazioa. Oinezkoen lehentasuna eman gura diete. Horretarako, adibidez, bidegurutzeetan, oinezkoek eta ibilgailuek bat egiten duten lekuetan, galtzada-harria ipiniko dute, ibilgailuak motelago joan daitezkeen eta, hala, oinezkoen lehentasuna eman. Bestalde, Udala plazaratxo biribilunean ere egingo dituzte lanak, auto ilarak eta auto pilaketak saihesteko.

Bestalde, ikusi dute Uribarri etorbidean eta Arrasate pasealekuan daudela zirkulazio arazotik handienak. Hori dela eta, han dagoen biribilunearen barruko aldea txikiagotu egingo dute, eta Uribarri etorbidera eta Arrasate pasealekura sartzeko errei gehiago egingo dituzte. Horrez gain, zebra-bideak biribilunetik urrunduko egingo dituzte. Eta Arrasate pasealekuan dagoen semaforoa Loramendi kalea dagoen bidegurutzean ipiniko dute.


GIZARTEA/ Emakumeen Nazioarteko Eguna

Ekimen ugari emakumeen aldeko egunean

UBANE MADERA

Martxoaren 8ak Emakumeen Nazioarteko Eguna gogorarazten digu. Emakume batzordeak ere hala egin du, eta datorren astean hasi eta martxoaren 26ra arte hainbat ekimen antolatu ditu. Adibidez, Toti Martinez de Lezea etorriko da.

Datorren eguaztenean, hilak 5, hasiko dira emakumeen omenezko ekitaldiak. Toti Martinez de Lezea idazleak hitzaldia egingo du, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Historiari begiratu egingo dio idazle arabarrak, emakumeen ikuspuntutik, jakina. Gero, egunean, Maria Novaro zinemagilearen *Sin dejar huella* filma eman-goto dute, 21:30ean, Amaian.



Beltzez eta gorritz egindako kartelak irudikatuko du aurtengo martxoaren 8a.

AZOKA ETA MANIFESTAZIOA

Martxoaren 8an bertan, egun osoan izango dira ekimenak. Goizean, emakumeen azoka izango da, 10:00etan, Seberren. Eta 13:00etan, Ainhoa Agirreazaldegia, Oihane Enbeita, Jon Maia eta Jesus Mari Irazu bertsoari saioa egingo dute; hori ere Seberren. Arratsaldean, berriz, errebindikazioak egingo izango da. Manifestazioa irten-go da Seberretik, 19:00etan. Eta 20:00etan, luntxa egingo dute.

Eta domekan, antzerkia izango da Amaia antzokian. *Ai ama lana* taularatuko dute, 19:30ean.

BI FILM ETA IKASTARO PRAKTIKOA

Horrez gain, datorren asteko egunean, hilak 13, Agnes Jaoui zinemagilearen *Para todos los gustos* filma eman-goto dute, 21:30ean, Amaia antzokian. Astebete geroago, beste emakumezko baten filma eman-goto dute Amaia antzokian: Samira Makhmalbaf-en *La Pizarra*, 21:30ean.

Eta egitarauarekin bukatzeko, *Emakumea eta hiria* ikastaroa eman-goto dute Madrildik etorriko diren arkitekto batek eta Hirigintzako langile batek, biak ere emakumezkoak. Oso ikastaro praktikoa da, edonork parte hartzeko modukoa. Hirien planeamenduan emakumeen iritziak eta proposamenak landuko dira.

POLITIKA/ Euskaldunon Egunkaria itxi dute

'Egunkaria' itxi dutela-eta, protestak izan dira herrian

Arrasaten ere izan dira mobilizazioak *Egunkaria*-ren kontrako operazio poliziala salatuz. Operazioa izan zen egunean bertan, Arrasateko euskalgintza osatzen duten 14 elkarte eta enpresek erantzun bateratua eman zuten, eta polizia operazioa gogor salatu zuten. Horren harira, egunean izan zen osoko bilkuran gertaera salatuzko idatzia irakurri zuten; eta hurrengo oso-

ko bilkura baterako mozioa ere aurkeztu zuten.

Esan beharrik ez dago Goienako langileok (jakina, ARRASATE PRESSko langileak barne) ere salatu genuela gertatutakoa. Kale bilkura egin genuen egunean, Bergarako udaletxearen aurrean.

BILKURA GEHIAGO ETA MANIFESTAZIOA

Egubakoitzean kale bilkura gehi-

ago egin zituzten. *Denok gara Egunkaria* lelopean egin zituzten protestak, herriko zenbait biribilunetan. Eta zapatuan Donostian izan zen manifestaziora joateko autobusak antolatu zituen Arrasateko euskalgintzak. Lau autobus joan ziren Arrasatetik.

Eguaztenean, Kontseiluak deituta kale bilkura izan zen udal-txe aurrean. Horrez gainera, Euskal Herriko udalerrri guztietan mozioa aurkezteko dei egin du Kontseiluak.

Bestalde, *Euskaldunon Egunkaria*-rekiko elkartasun mezuak etengabeak izan dira egunotan. Adibidez, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Fakultateko ikasleek eta irakasleek elkartasuna emateaz gain, Euskal Herria salbuespen egoeran dagoela salatu zuten. Era berean, *Egin* egunkaria eta *irratia* eta *Ardi beltza* aldizkariekin gertatu zen moduan, herrigintzan diharduten lagunak legez kanpoan baleude bezala hartzen dituztela-eta, haserre daudela gaineratu zuten. Orain, sinadurak batzen hasi dira.



Euskalgintzako kide dezente batu zen osoko bilkuran, protesta egiteko.

LABUR

Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak hobetzeko egitasmoa

Administrazioaren eta herritarren arteko hartu-emana hobetzeko erakundeak sortu dute Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek. Erakunde horrek Izenpe du izena, eta Gas-teizen dago. 2002ko ekainean sortu zen Izenpe. Oraingoan, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiekin dabil lanean. Aurrerantzean, ordea, lankidetzara hori beste erakunde batzuetara zabalduko dute. Izenperen bitartez, herritarrek administrazioarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, eta, bide batez, administrazioak berak ere ziurtagiriak bidali ahal izango dizkie herritarrei. Orain arte, horrelakoak egiteko derrigorrezkoa zen administrazioaren egoitzaren batera joatea.

Irakeko gerraren aurka eta Euskal Herrian gertatzen ari direnen gaineko meza

Meza berezia egin zuten eguaztenean San Juan parrokiaren. Bakearen aldeko meza. Izan ere, Uribarriko parrokiak eta Santa Marina, San Isidro, San Juan Bataiatzailea, San Frantzisko eta San Andres parrokiak bat egin zuten Donostian bakearen alde deituta zegoen otoitzarekin. *Zoriontsuak* bakegileak lelopean, oro har, eraso guztien aurka egin zuten otoitz. Hain zuzen ere, Iraken kontra egin gura duten gerraren aurka egin zuten otoitz, eta horrekin batera, Euskal Herrian gertatzen ari direnen gaineko gogoe-ta ere egin zuten.

Gas hodia desbideratu beharko dute Cerrajerako urbanizazioan

Cerrajerako etxebizitzetako urbanizazioa egiten ari diren lekuan altzairuzko gas hodia agertu da lurpean, inork espero ez zuen lekuan. Izan ere, gas hodi hori etxebizitzak eraiki behar diren lurzoruan dago. Hori ikusita, oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du Naturgas enpresari egoeraren berri ematea eta hari eskatzea gas hodiaren desbideraketa egin dezan.

Cerrajerako lanak direla-eta, kexuak aparkalekuengatik

Cerrajerako etxebizitzetarako azpiegiturak sartzeko lanak egiten hasi ziren orain dela pare bat aste. Horren ondorioz, INEMen ondoko lursaila itxi egin dute eta han zeuden aparkalekuak kendu egin dituzte. Haren ordez, errepidearen beste aldean, industrialde inguruan, aparkatzeko beste gune bat egokitu dute, baina, badirudi irtenbide hori ez dela oso egokia zenbaitendako. Adibidez, eskualdeko ospitaleko eta Arrasateko ambulatarioko langileen batzordeak idatzia aurkeztu dio Arrasateko Udalari. Idatzi horretan, besteak beste, esaten dute behin-behinerako ipini duten aparkaleku horren baldintzak oso eskasak direla.

Era berean, uste dute aparkatzeko arazoak bere horretan segitzen duela, oraindik ez dago eta aparkatzeko nahikoa lekurik.

LANTEGIETAKOAK ERE HASERRE

Inguruko lantegietako langile batzuk ere ez daude pozik egoerarekin. Adibidez, Transportes Aranburu enpresako ordezkariek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, hor dauden lantegietan (garraio enpresa barne) lekua behar dute kamioiak-eta lantegietara iritsi ahal izateko.

Hori dela-eta, lantegi horietako ordezkariak ere idatzia aurkeztu dute udaletxean. Udalari zera eskatzen diote: aparkaleku horretako zenbait lekutan aparkatzea debeka dezan, horrela, ospitalera edo ambulatarioa doazenek lantegietarako bidea libre utz dezaten.

UDALAREN ERANTZUNA

Eskaera biak aztertu ostean, Udalak honako erantzuna eman die: behin-behinerako aparkalekua egokitu dutela, eta hura erabili beharko dela lanak bukatu artean. Behin-behineko aparkaleku horretan ere eraikitzen hasten direnean, beste aparkaleku bat egokituko dute; eta horrela egingo dute lanok irauten duten artean. Aurreikuspenen arabera, lau urte beharko dituzte guztia egiteko.

LUR AZPIKO APARKALEKUA

Horrez gain, Udalak gogorarazi du Eusko Jaurlaritzak ambulatarioaren beharrak asetzeko lur azpiko aparkalekua egiteko konpromisoa duela. Aparkaleku hori ambulatarioaren atzeko aldean egitea da asmoa. Baina, esandako moduan, Jaurlaritzaren konpromisoa besterik ez da; hau da, oraindik ez dago eta proiekturik ez beste ezer ere.

POLITIKA/ Osoko bilkura

Onartu dituzte 2003ko aurrekontuak


UBANE MADERA

Arrasateko Sozialista Abertzaleen, Eusko Alkartasunaren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin onartu zuen udalbatzarrak 2003ko aurrekontua. Osoko bilkurak eztabaidatu zituen gainerako gaiak ez ziren onartu.

Alderdi popularreko zinegotzia ez zen joan den egueneko batzarrean egon; alderdi sozialistak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak, berriz, aurrekontuen kontra bozkatu zuten. Paco García PSE-EEko bozeramaileak adierazi zuen, alde bategatik, aurrekontuak behin-behinekoak direla, laster aldatu egin beharko dituztelako. Bestetik, esan zuen aurrekontuan onartutako partidetakoz batzuk ez direla herri honetako bakearen eta bizikidetzaren aldekoak. Horrekin batera, zenbait partida sortzeko eta beste batzuk ezabatzeko emendakina ere aurkeztu zuten sozialistek, baina ez zen onartu.

Jose Mari Loitik, berriz, EAJ-ren izenean Arrasate Irratiari esan zioenez, aurrekontuen kontra bozkatu dute eurek ezin izan dutelako parte hartu aurrekontuak adosteko orduan.

Kontuak kontu, udalbatzarren gehiengoak onespenera eman dio 2003ko aurrekontuari: 27.371.113,75 euro.



Denok gara Egunkaria zioen idatzia aurkeztu zuten ASako, EBko eta Eako zinegotziek.

MOZIOAK

Aurrekontuaz gain, Joseba Pagazaurtunduren kontrako atentua gaitzesteko hiru mozio ere aurkeztu zituzten PSE-EEk, EAJk eta EAK; bakoitzak bana. Gainera, PSE-EEk lehenagotik aurkeztuta zuen mozioa aldatu eta beste bat aurkeztu zuen. Edozelan ere, ez zen aurkeztutako mozio bat bera ere onartu.

'EGUNKARIA' DELA-ETA

Bukatzeko, *Egunkaria*-ren itxiera dela-eta, Arrasateko euskal

gintzak hori salatzen mozioa aurkeztu gura izan zuen, baina zinegotzi bat falta zela-eta, legeak ez du hori egiten uzten. Hortaz, hurrengo osoko bilkuran landuko dute gaia. Edozelan ere, EAren izenean, Amaia Larrañagak "euskararen kontrako eraso" eta *Egunkaria*-ren itxialdia gogor kritikatu zituen. Gauza bera egin zuen Xabier Zubizarreta alkateak. PSE-EEko zinegotziak, berriz, joan egin ziren; esan zuten EAren interbentzioa ezin zela onartu.

GIZARTEA/ Espainiako gerran kaltetutakoen omenez

36ko gerran kaltetutakoen aldeko ekimenak

Espainiako gerran hil zituzten eta desagertu zirenen omenezko ekimenak egin gura dituzte gure ibarrean. Hori antolatzeko, batzarra izan zen Arrasaten joan den zapatuan, hilaren 22an.

Izan ere, 36ko gerran fusilatutakoen eta desagertutakoen senideek ez dute sekula inolako errekonozimendurik eta ordain moralik jaso. Are gehiago, Mari Karmen Zarrabek, desagertutako baten senideak, GOITBri adie-

razi zionez, bazterkeria jasan dute orain arte. Horrela, adibidez, euren izenean omenaldia egin gura dute gure ibarrean. Hala, zapatuko batzarrean erabaki zuten omenaldi hori datorekin ekainaren 8an izango dela.

MONOLITOA ETA ERAKUSKETA

Adibidez, monolitoa ipiniko dute Arrasaten, desagertutako guzti izenekin. Eta erakusketa ere antolatu dute; hain zuzen, martxoaren 30ean inauguratuko dute erakusketa hori. Besteak beste, desagertutakoen eta hildakoen bizitzaren berri emango dute erakusketan; esate baterako, desagertutakoen argazkiak erakutsiko dituzte. Ibarreko herri guztietan ipiniko dute erakusketa. Erakusketaren helburua da, besteak beste, belaunaldi berriei gertatutakoaren berri ematea.

Gure ibarrean 100 bat lagun hil zituzten, edo desagertu ziren, baina datu ofizialen arabera, 80 baino ez dira.



MAIDER ARREGI

Hildakoen eta desagertutakoen senideek batzarra egin zuten udaletxeko aretoan.

LABUR

Udan Errusiako umeak hemengo familietan hartzeko kanpaina abiarazi dute

Kainabera gobernuz kanpoko erakunde elorriarrak ume errusiarak hemengo familietan hartzeko kanpaina abiarazi du. Artikoko Murmans eta Nizhnevartovs lurraldeetan dauden umezurtegiak dauden umeak dira. Batzuk umezurtegiak dira eta beste batzuk apurtutako familietako seme-alabak. Kainaberaren asmoa da horietako ume batzuk Euskal Herrira ekartzea udan. Izan ere, psikologoen esanetan, umezurtegiak umeendako oso garrantzitsua da hona etortzea, euren osasunerako eta emozio egoerarako. Kainaberak hiru urte daramatza proiektu horrekin. Iaz, 87 ume ekarri zituzten eta aurten marka hori hautsi gura dute. Ekimenean parte hartu gura duenak 656 74 85 06 (Isa) telefonora deitu behar du.

Emakumeendako literatura solasaldiak eta Autodefentsa ikastaroa antolatu dituzte

Iaz abiarazitako ekimenaren arrakasta ikusita, aurten ere emakumeendako literatura solasaldiak antolatzea erabaki du Udalak. Liburutegiaren laguntzarekin, besteak beste, liburuak irakurri eta komentatu, idazleak aztertu eta istorioen egoera soziala aztertzen dute solasaldiotan. Bestalde, herriko ikastetxeekin batera, Autodefentsa ikastaroa antolatu dute emakumeendako. Besteak beste, autodefentsa teknika psikologikoak eta fisikoak ikasiko dituzte. Ikastaroaren egunak ikastetxe bakoitzean zehaztuko dituzte.

Udala auzoan dauden zuhaitz batzuk kendu eta berriak landatuko dituzte

Udala auzoko zelaian (aparkalekuaren aldamenean dagoen zelaian) dauden lizarretako lau txarto daude. Hori dela eta, Udalak erabaki du lizar horiek kendu eta berriak landatzea. Hain justu ere, 20 lizar landatuko dituzte, Garagartzako udal mintegitik ekarritako lizarrak, hain zuzen ere. Hori egiteko, 2.129,88 euroko aurrekontua onartu du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Eta Piques y Jardines Abadiano enpresari adjudikatu dio lan hori.



Norberaren izaera mozorrotzeko eguna

Asteburuko parrandaz gain, gura duenak martitzenean ere izango du zer egin eta zer ikusi Arrasaten: 17:00etan, *Clin clan clown* izeneko umeendako ikuskizuna izango da Amaia Udal Antzokian; ordu berean, Detraka taldeak herriko kaleak girotuko ditu; 18:00etan, Samasiku txaranga ibiliko da Herriko Plazan; eta erraldoi eta kilikiak ere ibiliko dira kalez kale; 19:00etan, Pancho Villa Bandak kalejira egingo du; 20:00etatik 21:30etara eta 22:30ean, Luhartz taldearekin dantzaldia izango da plazan; eta, bukatzeko, 23:30ean, sardina erreko dute, hori ere Herriko Plazan.



EUROPAN ZEHAR BIDAIA

Eguaztenean, Arizmendiko Batxilergoko ikasleak ikasketa-bidaia hasi zuten. Zazpi egunean Europan zehar ibiliko dira gora eta behera, eta, besteak beste, Paris, Eurodisney, Amsterdam, Brujas eta

Brusela bisitatuko dituzte. Argi dago leku horiek guztiak bisitatzeko autobusean ordu dezente egin beharko dituztela, baina nork ez luke astebeteko bidaiatxo hori egingo? Ondo pasatu!




UGARTE TABERNAKOEI AGURRA

Argazkian tranpatxoren bat edo beste egin dugu, baina azkenean lortu dugu txutxumutxu honetako protagonistak argazki berean sartzea. Mezu bat daukagu Ugarte tabernakoendako: "Bost urte hauetan zeuon ondoan egun alai eta goxoak igaro ditugu. Santa Marinako lagunen partetik, berdin jarraitu!"

HAIZEAK ERAMAN ZUENA

Herritar bat baino gehiago *pozik* egongo da egunotan egin duen haizeak sortutako kalteengatik. Aretxabaleta aldean bat baino gehiago auto barik geratu da zuhaitza gainera erorita. Ez dugu uste argazkiko motoak kolpe handia izango zuenik, baina batek baino gehiagok diru dezente gastatu beharko du leiho berriak jartzen.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Liderraren kontra irabazteko gogotik egin beharko dute lan Bernardo Balerdiren mutilek.

ESKUBALOIA

AGR Arrasatek denboraldiko partidu garrantzitsuenari egingo dio aurre

Igoera faserako sailkatzeko ezinbestekoa da asteburuan liderrari irabaztea

XABIER URZELAI

Liga Txapelketa amaitzeko partidu bi baino ez dira geratzen, eta partidu bi horietan AGR Arrasatek lehenengo eta bigarren postuan dauden taldeen kontra jokatu beharko du. Mondragoetarrak hirugarren postuan daude, eta bi talde baino ez dira sailkatzen.

Arrasateko eskubaloia jarraitzen dutenek bazekiten AGR Arrasatek liga amaiera gogorra izango zuela. Txapelketa amaitzeko jardunaldi bi geratzen dira, eta bietan ere emaitza positiboa lortu behar du Arrasatek. Norgehiagoka bi horiek zuzeneko kontrarioen aurka izango dira. Oraingo asteburuan, Bernardo Baler-

diren mutilek Donibane liderraren kontra jokatu dute. Datoren asteburuan, berriz, bigarren postuan dagoen Hegialde Auto talde legazpiarra izango da Arrasaten. Igoera faserako sailkatzeko hiru talde horiek daude, baina talde birendako lekua baino ez dago; hortaz, azken unera arte emozioa izango da.

JOAN DEN ASTEAN, ERRAZ

Joan den asteburuan, AGR Arrasatek Urolaren kontra jokatu zuen, eta mondragoetarrak erraz nagusitu ziren. Urolak ez zuen gauza handirik erakutsi. Berehala aurreratu ziren Arrasateko mutilak; hala, partidua hasi eta lehen hamar minutuetan 11-4ko emaitza erakusten zuen markagailuak. Atsedendian, AGR

Arrasatek bederatzi goleko aldea zuen (18-9), eta bigarren zatian ere etxeokak izan ziren aurretik, nahiz eta Urolak markagailuko aldea txikitu zuen: 31-26. Oraingo asteburuan arrasatearrek beste maila bateko aurkari bat izango dute, liderra ez dago-eta txantxetarako. Hala ere, Bernardo Balerdik zuzentzen duen taldea gauza da Donibaneri irabazteko.

Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, 25-25 egin zuen joan den zapatuan Beasainen kontra. Epailea ez zen partidura azaldu, eta beasaindar batek egin zituen epaile lanak. Mondragoeko entrenatzaileak argi zeukan Beasaingo jokalariek nahi zuten guztia egingo zutela, eta halaxe izan zen. Arrasatek, baina, puntu baliotsua ekartzea lortu zuen.

Arrasateko xake taldeak bosgarren postuan amaitu du Liga Txapelketa

Arrasateko San Andres Xake Taldeak bosgarren postuan amaitu du Euskal Liga Txapelketa. Mondragoetarrak azken unera arte izan dute Ohorezko Euskal Ligarako sailkatzeko aukera, baina azkenean, mailari eustearekin konformatu behar izan dira. Eta ez da gutxi, hamar taldetatik hiru mailaz igotzen zirelako eta lau mailaz jaisten zirelako. Horrenbestez, San Andres Xake Taldea

mailari eutsiko dioten hiru talde horien artean geratu da.

Azken jardunaldian, mondragoetarrak Ruta de Europa taldearen kontra jokatu zuten. Bi taldeendako berdinketa emaitza ona zen, eta inork ez zuen arriskatu (2-2). Aurtengo Liga Txapelketan parekotasun handia egon da. Adibide moduan, azkeneko postuan geratu den Santurtzik irabazi egin zion txapelketako onena izan

den Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeari.

TXAPELKETA HOBETO PRESTATU

Arrasateko xakelariak gustura geratu dira aurtengo txapelketan egindako lanarekin. Datoren urterako, baina, mondragoetarrak hobeto prestatuko dute txapelketa. Horrez gain, errefortzuren bat bilatzen ahaleginduko da Arrasateko taldea.

FOTOKIROLA



Kenci Arrasatek 95-83 irabazi zion Padurari

Kenci Arrasate puntu beharrean da, eta joan den asteburuan aurrerapauso txiki baina garrantzitsua eman zuten Iker Zubiriaren mutilek. Norgehiagoka ez zen batere erraza, Padura sailkapenaren goialdean dagoen taldea da-eta. Hala ere, mondragoetarrak ondo jokatu zuten; defentsan ondo ibili ziren, eta erasoan lan paregabea egin zuten. Partidua irabazteaz gain, mondragoetarrak azken bolada txarrari agur esan diote, eta oraindik igoera faserako sailkatzeko aukerak dituzte.

ZIKLOTURISMOA

Domekan Euskal Herriko zikloturisten topaketa izango da Dorletan

23 urte azpiko eta elite mailako lasterketek 25 urte beteko dituzte aurtun. Hori dela eta, Dorletako Txirrindulari batzordeak hainbat ekintza antolatuko ditu aurtengo denboraldian.

Horien artean, besteak beste, mendiko bizikleta proba, 23 urte azpikoen lasterketa eta elite mailakoen lasterketa. Horren harira, domekan, martxoaren 2an, Euskal Herriko zikloturisten topaketa izango da. Zikloturistek Dorletako Amabirjinari lore eskaintza egingo diote, eta gero luncha izango dute.

ATLETISMOA

Markel Blanco Euskadiko Selektioarekin izango da Espainiako Txapelketan

Markel Blanco martxoaren 16an Tarragonan jokatu den Espainiako Txapelketan izango da Euskal Selektioarekin. Mondragoetarra hirugarrena izan zen joan den astean Elgoibarren jokaturako Euskadiko Kros Txapelketan, eta postu horri esker eskuratu zuen Euskal Selektioarekin korritzeko txartela. Bestalde, Jonathan Pérezek zilarrezko domina eskuratu zuen pertika jauzian Euskadiko Txapelketan. Jonathanek 4,80 metroko jauzia egin zuen; marka polita da, baina ez da Espainiako Txapelketarako sailkatzeko nahiko izan.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Martxoaren 12an diapositiba emanaldia egingo du Aritza Monasteriok

Besaide Mendi Elkarteak antolatuta, Aritza Monasterio 2002ko Urrezko Pioleta Arrasaten izango da martxoaren 12an. Aritza Monasterio Perun bizi da, Andeetan, eta Huaraz mendietako gida da. Arrasaten egingo duen diapositiba emanaldian, Huayhuash-eko mendilerroaren gainean egingo du berba Aritza Monasteriok.

Diapositiba emanaldia arratsaldeko zazpitan izango da, Monterron jauregian, eta guztiok zaudete gonbidatuta.

Mondrak aukera paregabea galdu zuen zapatuan Zumaiakoren kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko futbol taldeak lidertza eskuratzeko aukera ezin hobea galdu zuen zapatuan Atxabalpen. Josu Zubiriaren mutilek norgehiagoka polita egin zuten, baina Zumaiakok lehen minutuan lortutako golak norgehiagoka erabat baldintzatu zuen. Oraindik, baina, hogeita zazpi puntu daude jokoan.

Ezinezkoa da norgehiagoka bat gaizkiago hastea: Jon Muruamendiaren hasierako sarea egin eta Mondrako jokalariek atzera egin zuten pasea; atezainari iritsi zitzaion baloia, baina Jon Mondragónek huts egin zuen kontrolatzen zihanean, eta ordurako aurrean zen Zumaiakoko aurrelaria. Penaltia egin behar izan zuen Jonek, eta jokaldi horri esker egin zuen Zumaiakok partiduko gol bakarra.

Mondrako atezainak seguru ez zuela partidua gustura amaitu, baina dabilenari gertatzen zaizkio horrelakoak, eta garrantzitsua zera da: hutsegitea egin eta gero, kontzentrazioari etsi eta partiduan jarraitzea, horrelakoetatik ere ikasi egiten da-eta.

Lehenengo minutua baino ez,



MAIDER ARREGI

Gola egin eta gero Zumaiakok defentsa lana besterik ez zuen egin.

eta liderra aurretik zen markagailuan. Gainerako 89 minutuetan Arrasateko taldea partiduari buelta ematen ahalegindu zen. Etxekoek ondo jokatu zuten, baina Zumaiako atzeka aldean sartu eta defentsa lanetan buru-belarri ibili zen. Jon Muruak bitan bidali zuen baloia sare artera: lehenengo aukeran eskuaz errematatu zuen, baina bigarren gola legezkoa izan zen. Epaileak, baina, ez zuen gauza bera ikusi eta

jokoz kanpo adierazi zuen. Liderra liderrago da orain, bost puntuko aldea dauka-eta.

LEHENBAILEHEN GORA EGIN BEHAR

Mondra taldeko jokalariei eta jarraitzaileek ilusio handia zeukaten Zumaiako mendean hartzeko. Helburu hori ez da lortu, baina oraindik puntu asko gertzen dira jokatzeko, eta Mondrak behera egin beharrean gora egin behar du, Ilintxaren zelaian.

FOTOKIROLA



Arrasateko Errugbi Taldeak 13-26 galdu zuen Getxoren kontra

Zeingeziagoka polita jokatu zuten joan den zapatuan Arrasate eta Getxok. Zelaia lokaztuta zegoen eta Garagartzako zelaira hurreratu ziren jarraitzaileek ezin izan zuten jokaldi azkarrik ikusi. Lehia handiko norgehiagoka izan zen eta, bizkaitarrak nagusitu ziren arren, mondragoetarrak pozik geratu ziren egindako lanarekin. Oraingo asteburuan, David Jauregiren mutilek Gasteizko Gaztediren kontra jokatuko dute. Partidua Gasteizen izango da, eta mondragoetarrak seguruenerik aurten ere trajea jantzita joango dira Gasteiz aldera. Bi taldeek ondo ezagutzen dute elkar,, eta, beste batzuetan moduan, oraingo asteko partidua ere gogorra izango da.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Iriztu Taberna	4-4
NS/NC - Lasagabaster	1-4
You Know! - Abocajarro	7-2
Etxerat - Rayo Aldeano	1-0
Komando Alpargat - Goma-2	1-4
Al Kaeda - Maldifa's	---
Makanaki - Betraye	1-3

B MULTZOA

El Ekipo A - Whiskeria	3-1
Fuxxion - Estu Ta Larri	15-1
Aurrera Bolie - Fraguél Gol	8-6
AT Celaya - Dribling.es.vg	3-8
Etxinai! - Saloga	1-0
AC Surcos - Billy & The cowboys	11-1
Bikain Akademia - Koka Juniors	6-2

PARTIDUAK

MARTXOAK 1, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Aurrera Bol - Makanaki.	AC Surcos
12:00: AC Surcos - Goma-2.	A. Bolie
13:00: Lasagabaster - Dribling.	Goma-2
15:50: Betraye - Bikain Akad.	Etxerat
17:00: Koka Juniors - Etxerat.	Bikain Akad
18:00: AT Celaya - Iriztu Taberna.	K. Juniors

MARTXOAK 2, DOMEKA

11:50: Saukelu Scream - Fuxxion.	Etxinai!
13:00: You Know - Etxinai!	Saukelu Scream

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Saukelu Scream	19	13
2. Iriztu Taberna	19	13
3. You Know!	19	13
4. Etxerat	18	13
5. Betraye	17	13
6. Makanaki	16	13
7. Lasagabaster	15	13
8. Goma-2	15	13
9. Komando Alpargat	12	13
10. NS/NC	9	13
11. Abocajarro	8	13
12. Al Kaeda	5	13
13. Maldifa's	3	13
14. Rayo Aldeano	3	13

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	23	13
2. Dribling.es.vg	20	13
3. Aurrera Bolie	18	13
4. Bikain Akademia	18	13
5. Koka Juniors	16	13
6. Etxinai!	15	13
7. AT Celaya	15	13
8. Fuxxion	14	13
9. Fraguél Gol	12	13
10. El Ekipo A	11	13
11. Estu Ta Larri	8	13
12. Billy & The Cowboys	8	13
13. Saloga	2	13
14. Whiskeria	2	13

FASE BERRIA ABIAN!

TXAPELKETAKO BIGARREN FASEAN, MULTZO BERRIAK

Oraingo asteburuan bigarren fasea hasiko da. Hainbat talde kanpoan geratu dira, baina geratzen diren taldeek daukaten guztia emango dute. A multzoa talde hauek osatzen dute: Saukelu Scream, Dribling, You Know!, Bikain Akademia, Betraye, Etxinai!, Lasagabaster eta Fuxxion. B multzoan, berriz, talde hauek izango dira: AC Surcos, Iriztu taberna, Aurrera Bolie, Etxerat, Koka Juniors, Makanaki, AT Celaya eta Goma-2. Orain arte ikusitakoaren arabera, badirudi AC Surcos dela talde sendoena. A multzoan hiru talde geratu dira hemeretzi punturekin, baina sailkapen taula estu-estu dago. Bigarren fasean hutsetik hasiko dira guztiak, hortaz, orain arte egindakoak gutxi balio du. Azkenik, Iriztu tabernako jokalariei batek bost partiduko zigorra bete beharko du Saukelu Scream taldearen kontrako partiduan erakutsitako jarrerarengatik.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Amaikak Bat - Mondra
Ohor. gazt. Zapatuan. 11:00. Deban.
Gainerako taldeek atsedena dute.

ERRUGBIA

Gaztedi - Arrasate
Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Gamarran.
Juventud - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 13:00. Santanderren.
Hernani - Arrasate
Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Hernanin.

SASKIBALOA

Paules Carrefour - Kenci Arrasate
Seniorrak. Domekan. 12:15. Paulesen.

ESKUBALOA

Arrasate - Donibane Cottal
Seniorrak. Domekan. 11:00. Iturripen.
Donibane Majestic - Arrasate
Seniorrak. Domekan. 11:30. Donibanen.

EMAITZAK

ESKUBALOA

Seniorrak: BKL CAF - Arrasate 25-25
Seniorrak: AGR Arrasate - Urola 31-26
Gazteak: Tolosa - Arrasate 22-22
Kadeteak: Gatz M. Jakion - Zarautz 19-25

ERRUGBIA

Seniorrak: Arrasate - Getxo Artea 13-26

FUTBOLA

Ohor gazt: Mondra - Aretxabaleta 3-2
Kadeteak: Anaitasuna - Arrasate 1-0
Big. kadet. (Kopa): Urki - Arrasate 1-0
Neskak: Mondra - Bergara 7-0

SASKIBALOA

Senio.: Kenci Arrasate - Padura 95-83
Junio.: Kenci Arrasate - La Salle 64-77

PILOTA (UDABERRI)

Senio.: Oñati - Arrasate 22-15



Mozorroitu eta gero.

ibili saltsero

Okoretegi

Kimetz

Rumba

Lora

Boliñete erretegia

Basati

Monte

Ezkiña

Ekaitz

Gure Leku

Jai Zale

Iturriotz



ANDER GILLENEA

Pantxo eta Peioren azken lanak sasoian daudela erakutsi du; hala ere, euren kantu ezagunenak ere joko dituzte seguru asko.

MUSIKA/ Pantxo eta Peio kontzertua emango dute Amaia Udal Antzokian

Korrika Kulturalak Pantxo eta Peio ekarri ditu herrira

IKER BARANDIARAN/LEIRE KORTABARRIA

AEK-k, Korrika Kulturalaren ekitaldien barruan, Pantxo eta Peio musikariak ekarri ditu Arrasatera. Gaur, egubakoitza, kontzertua emango dute Amaia Udal Antzokian. Emanaldia 22:30ean izango da eta sarrera leihatilan zortzi euro kostatuko da.

AEK-k kontzertu berezia antolatu du, Korrika Kulturalaren harira. Gaur, egubakoitza, Lapurdiko Pantxo eta Peio musikari ezagunek kontzertua emango dute Amaia Udal Antzokian. 22:30ean izango da eta sarrera zortzi euro kostatuko da.

Pantxo eta Peio 60ko hamar-kada bukaeran hasi ziren musikan elkarrekin, eta 1969koa da euren lehenengo diskoa. Hegoaldean Frankoren agintearen azkeneko urteak ziren; Iparraldean, ostera, euskal berpizkundearen hasiera zen. Bikote horrek sasoi horretan hasi zuen ibilbidea, eta

euren kantuek euskaldun askoren bihotzak hunkitu zituzten. Telesforo Monzon zenak ere hainbat kantu eman zizkien, eta bikotearen lehenengo diskoan, *Itziarren semea* eta bestelako kantu esanguratsu batzuk ageri zaizkigu.

Hegoaldean, egoera politikoa euskal kultura sustatzeko aproposa ez zen unean, Pantxo eta Peio Karreker eta Peio Ospitalek taula gainera igo eta euren sentipenak musikatu zituzten. Berehala, jarraitzaile mordoak lortu zituzten; ez zen gutxiagorako. Hain zuzen ere, Iparraldearen kasuan, euskara eta euskal kultura krisialdian zeudenean, Pantxo eta Peio kontzientzia lokartuak iratzartzeaz arduratu ziren. Hala, bete-behar hori hartu eta euren helburua lortu zuten.

'LAPURTAR KOBLARIAK'

Aspaldi kontzertuak emateari utzi zioten arren, berriro elkartu ziren, ikastolen alde egiteko, eta azkeneko urteotan tarteka

elkartu eta kontzertuak egin dituzte, baita disko bat grabatu ere. Pantxo eta Peioren azkeneko diskoak *Lapurtar koblariak* izena du eta 2002ko irailean grabatu zuten. Jean Phocas-ek egin zituen teknikari lanak eta Elkar argitaletxeak kaleratu zuen. Disko horren grabazioan hainbat eta hainbat laguntzaile izan zituzten: besteak beste, Caroline Phillips, Joseba Tapia, Mixel Ducau, Arkaitz Miner eta Xabier Zeberio.

Bikote lapurtar horrek sasoi dagoela erakutsi du; iaz, esaterako, Eskoriatzan eman zuten kontzertuan ikusleak oso gustura geratu ziren.

"Betiko estiloari eusten diogu. Gure musika herrikoitasunean oinarritzen da, eta ez du bestelako sekreturik. Guk ahots sinpleak ditugu, sofistikazio barik, eta gure abestiak ere halakoak dira. Guk abesten duguna edozeinek abes dezake. Eta horixe gura dugu guk, hain zuzen: sinpletasuna eta herrikoitasuna".

era berean, Espainiako Orkestra izango dute lagun.

'REQUIEM DE LIGETI' ESTREINATU

Arrasatearrak eta bilbotarrak joan den astelehenean joan ziren Madrileran, entseguak eta prestakuntzak egitera, eta aste osoa egin dute han.

Arrasatearrez, bilbotarrez eta madrildarrez osatutako koruak Espainiako Estatuan lehenengo aldiz *Requiem de Ligeti* abestuko du. Luxuzko koru horrek hiru kontzertu emango ditu; Madrillgo Auditorio Nazionalan guztiak. Emankizunak gaur, egubakoitza, bihar eta etzi izango dira.

Goikobaluko hainbat kidek Espainiako Koruarekin abestuko dute Madrilen

I.B.

Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Goikobaluko partaide batzuek Madrillgo Auditorio Nazionalan abestuko dute, Bilboko Koruak gonbidatuta. Bilboko Koruak -arrasatearrak barne- Espainiako Koruarekin abestuko du eta,

KULTURAPILULAK

Arrasate Musikalek kontzertuak antolatu ditu gaur, egubakoitza, eta martitzenean

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua emango dute Musika Eskolan, 18:30ean. Ikasle askok hartuko dute parte, eta mozorrotuta joko dute. Martxoaren 4an, ostera, Arrasate Musikaleko Pancho Villa bandak kalejira egingo du, Aratusteak alaitzeko. Hain zuzen ere, mexikar jantzita irtengo dira eta zenbait *mexicanada* eskainiko dituzte.



ARTIBIA

Zalantza barik, jai koloretsua izango da asteburuan ospatuko dutena.

Andaluzia Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte

I.B.


Al-Andalus elkarteak Andaluzia Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur, egubakoitza, eta bihar. Besteak beste, Gau Flamenkoa, umeendako jokoak eta kontzertuak izango dira Al-Andalusen.

Al-Andalus elkarteak Andaluzia Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Al-Andalus koru errozieroak Andaluziako eresia

abestuko du; horren ondoren, ohorezko topa eta lancha izango dituzte; 23:00etan, berriz, Gau Flamenkoa egingo dute.

ZAPATUAN ERE EKITALDIK

Zapatuan, 12:00etan, parrillada egingo dute; 16:30ean, bestalde, umeendako jokoak eta askaria antolatu dituzte; 18:00etan, Sueños de Andalucía, Alegria de la Sierra eta Al-Andalus koru errozieroak musika emanaldiak egingo dituzte; 21:30ean, afaria egingo dute; eta 00:00etan, dantzaldia.



Aratusteetarako sardina gertu dago

Crisanto Margusinok eta Jesus Mari Egidazuk dagoneko gertu dute aurtengo Aratusteetarako sardina. Sardina sei metro eta erdi luze da eta egurrezko listoiekin egin dute; ezkatak, berriz, kartoiarekin egin dizkiote. Sardinak bizkarraren alde baten *Nunca Mais* leloa eramango du eta bizkarraren beste aldean, lelo bera baina euskaraz: *Inoiz ez gehiago*. I.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ ANTZERKIA

TXATXILIPURDIK BATZAR OROKORRA EGINGO DU

Martxoaren 7an, Txatxilipurdik batzar orokorra egingo du AEDko tabernan. Batzarra 18:30ean izango da eta elkartearen jarduera orokorra aztertuko dute: joan den urteko balorazioa eta aurtengorako plangintza, besteak beste.

LUDOTEKA IBILTARIA

Martxoaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, Ludoteka Ibiltaria egongo da Urribarriko Usaetxe plazan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdiko begiraleek egongo dira.

GAZTE KONTSEILUKO LOGOTIPOAK JASOTZEKO

Arrasateko Gazte Kontseiluko Logotipo Lehiaketan parte hartu zutenek dagoeneko euren lanak jaso eta etxera eraman ditzakete. Arrasateko Gazte Bulegoan dituzte lanak, bulego orduetan.

TXATXILIPURDI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi elkartea 2003ko udalekuen prestaketa lanetan hasi da, eta begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dute Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Izena emateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

ARTIUM IKERKETA BEKARAKO DEIALDIA

Beka horren helburua da gaur egungo artearen dokumentu-ondarearen gaineko informazioa ikertu eta batzea. Beka lortzeko beharrezkoa da Arte Ederretako, Artearen Historiako edo Bibliotekonomia eta Dokumentazioko diplomadun edo lizentziaduna izatea.

Martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira beka lortzeko eskaerak, hain zuzen ere, Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Sailean, Gasteizko Frantzia kalean.

Markeliñe taldeak 'Punto.Rabo' antzezlan eskainiko du domekan

IKER BARANDIARAN

Domekan, martxoak 2, Markeliñe antzerki talde bizkaitarrak *Punto.Rabo* izenburuko antzezlan eskainiko du. Amaia Udal Antzokian izango da, 19:30ean. Linboan kokatutako istorio umoretsua da.

Domekan, Markeliñe antzerki talde ezagunak orain arte egin duen azkeneko lana antzeztuko du: *Punto.Rabo*. Amaia Udal Antzokian izango da, 19:30ean. Markeliñe taldeak ibilbide luzea du eta orain arte bere antzezlanak helduei edo umei zuzendu dizkie. *Punto.Rabo* antzezlan, ostera, gazteendako eta espiritu gaztea duten helduendako egin du Markeliñe taldeak.

PURGATORIOKO KONTUAK

2002ko urrian estreinatu zuen Markeliñek *Punto.Rabo* antzezlan, Zornotzan, *Antzerkide* izeneko jardunaldietan. Aktore bik-protagonista nagusiek egiten dute lan: Pako Revueltasek eta Juanjo Oterok, hain zuzen ere. Aktore bi horiek Basauriko Antzerki Eskolan ikasi zuten eta Txusma antzerki taldean ere ibilitakoak dira.

Markeliñe taldeak antzeztan hori kokatzeko zerua edo infernua aukeratu beharrean, linboa hartu du berbagai. Antzeztaneko protagonistak *San Pedro* eta *Fausto* dira: biek hala biek hiltzen

'Punto.Rabo'
gazteendako eta
espiritu gaztea
duten helduendako
egin dute

*'San Pedro'-k eta
'Fausto'-k linboan
duten harremana
kontatuko digute
antzeztanean*

diren gizakien arimak sailkatu beharko dituzte, eta, sailkapenaren arabera, infernura edo zerura bidaliko dituzte. *San Pedro*-k zeruko atea zaintzen du eta *Fausto* infernuko atearen zaintzailea da.

UMORE GARRATZA ETA ETORRI HANDIA Markeliñeko partaideen esanetan, "antzeztan infernua eta zerua kokatzea ohikoa den arren, linboan kokatzea guztiz berritzailea da. Horregatik, oso interesgarria iruditu zaigu istorio hori kokatzea".

LOTSABARIK/ Koldo Karrillo

"Euskararen aurkako erasoak larriak dira"

IKER BARANDIARAN

Koldo zelanbait konbentzitu genuen elkarrizketa honi erantzuteko. Behin erantzun zuen eta, gure erruz, bigarren aldiz etorri behar izan zuen elkarrizketa egitera. Lotsa gutzia galdu du dagoeneko.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Suhiltzaile edo astronauta. Ohikotik kanpo dauden bi lanbide dira eta abentura kitsua ere badute. Oso gustuko nituen. Baina dagoeneko beste zerbait daukat buruan: ondo egongo litzateke argazkilaritzarekin lotutako lanen bat izatea, edo kazetari.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta, seme-alabekin, eta Arrasaten edo inguru honetan bizi izango nintzateke.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideiala?

Orain dudan adina ondo dago, baina 18 edo 19 urte izateak askatasun handiagoa emango du.

• Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari eta lagunekin ondo pasatzeari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Aspaldian euskarak jasan dituen erasoek eta horren aurrean batzuek duten jarrera pasiboa arduratzen naute.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende berria ezagutzeak eta ezezagunak niri begira egoteak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Ona, zerbait ematen didatenei bueltan ematen jakitea. Eta txarra, ezezkor samarra naizela, eta hasieran lotsatia naizela.

• Zure gorputzeko ataliek gustukoena?

Begiak, duten kolore polita-rengatik.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Aurpegiari eta begiradari.

• Arrasaten ligatzen da?

Neuk ez, baina bestela bai, ligatzen da. Norberaren izaerak zerikusia izango du horretan.



GAITZERDI

Markeliñe taldeko aktoreek oso egoera bereziak bizi izango dituzte.

Punto.Rabo antzezlan Markeliñek orain arte egin dituen antzeztanetatik umore garratzen duena eta etorririk handien daukana da. Ez du elkarrizketarik, baina keinuen eta soinuaren bitartez komunikatzen dira pertsonaia biak.


Izenburuaren esanahia honako hau da: puntuak zirkulua eta ongia irudikatzen ditu; buztanak, ostera, sexua eta gaizkia.

Esanahi horien harira, pertsonaia biak aurkakoak eta, era berean, aurkariak dira, baina bata besteak daukana lortu gura du. Hala, *San Pedro*-k erre eta dro-

gak kontsumitu gura ditu eta *Fausto*-k, berriz, bakea eta lasaitasuna gura ditu. Bata maitasunaren bila dabil eta bestea, ostera, sexuaren bila.

Biek linboan batera lan egiten dute, nor bere atea zaintzen, eta aurkariak diren arren, poli-ki-poli euren artean zelanbaiteko harremana sortuko da. Batak bestea tentatu egingo du eta oso egoera berezi eta umoretsuak bizi izango dituzte.

Aktore biek inprobisazio lan handia egin dute eta Markeliñe taldearen beste lan batzuetan baino gogorrago ibili dira.



BEHEKO JATETXETIK

Gladys Hernández

HILARION JATETXEKUE

XABIER URZELAI

Hilarion oin dala zortzi urte zabaldu euen, baiñe Gladysen hamazazpi urte daroie ostalaritzan lanien. Kontabilidadie ikasi euen, eta beste gauza batzuen artien zerbitzari lanak egiten ditu. Lanetik urtendakuen Gladysen alabekin egotie gustetan jako, eta denpora librie igerten dau faltan.

Amets bat?

Loterixie toketie.

Eta amets txar bat?

Gaixotasunak.

Egin dozun azken biajie?

Parisera, Aste Santuan.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei.

Eta gorrixen?

Aznarrei eta Bushei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Ocean's eleven / El médico / El canto del loco.

Drogak legalizauko zittukie?

Batzuk bai, baiñe danak ez.

Eta prostituziñue?

Bai, hori legalizauko neuke.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Zapatak.

Ze dauketzu sobran?

Kiloren bat edo beste.

Eta faltan?

Gauzak egitteko denpora librie.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Monterron.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Geure kalien daukogun apar-kamentuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Alderdi politikuekin berba gehixago egingo neuke.

Bizio bat?

Kafie.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Lan honetan jente interesante asko ezagutu dot.



"Ni Hilarionera etorriko banitz, entsalada on bat eta legatz betie eskatuko neuke"

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Brad Pitt, adibidez.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Richard Gerekin.

Telebisiñoko programa bat?

Programa entretenigarrixek gustetan jat: *Esta es mi gente, Crónicas Marcianas...*

Eta irratikue?

Irratixe kotxien jarten dot, eta jeneralien musikie entzuten dot.

Zertan gastauko zeuke dirue?

Kruzero baten-edo.

Noix eukitten dozue lan gehixago, asteburuen ala astien zihher?

Bixetan be antzera. Astien zihher

"Lan egitteko gurago dittut bazkarixek; izen be, afarixek berandu bukaketan die"

bazkari geixago emuten dittugu eta asteburuetan, barriz, afari gehixago.

Hilarionera etorriko baziñe, ze eskatuko zeuke?

Entsalada on bat eta legatz betie, adibidez.

Bazkarixek ala afarixek dittuzu gurago?

Neuk gurago dittut afarixek.

Edozelan be, lan egittie toketan bada, gurago dittut bazkarixek, afarixek berandu bukaketan die-eta.


Zergaittik Hilarion?

Neure aittagiñarrebantaberniek Hilarion euken izena, eta gaur egun Bengoa tabernie dauen lekuen euen.

NIRE BIDAIA HURA / Joxan García Zapiain

Afrikara / 2002ko martxotik irailera arte

J Joan den astean, Krugerko Parke Nazionalean utzi genuen Joxan. Krugerren astebete egin eta gero, Johannesburgoko aireportura itzuli zen bidaia honetako protagonista, autoa uztera. Handik Lurmutur Hirirako bidea hartu zuen, trenez. Joxanen esanetan, Lurmutur Hirian arraza nahasketa handia dago. Hiru aste egin zituen Lurmutur Hirian, eta autobusean ibili zen gora eta behera hiria bera eta inguruko mendiak eta kostaldea ikusten. Harrituta geratu zen hango kostaldean pinguinoak eta itsas txakurrak ikusi zituenean: "Esaten dutenez, baleak ikusteko ere leku paregabea da, baina nik ez nuen zorterik izan". Joxan gustura zebilen, bidaiako lehenengo asteak ziren, eta ondo moldatzen zen, ez zen galduko. Itxaropen Oneko Lurmuturra izugarri gustatu zitzaion, Afrikako azken lur zatia.



"Namibian zebilen haize beroa zoratzeko modukoa zen"

Lurmutur Hirian hiruko italiar ezagutu zituen Joxanek: "Berezi samarrak ziren, hippyak ziren, eta eguzkia gurtzen zuten. Ez zuten askorik jaten, eta jaten zutena barazkia zen. Eurekin egon nintzen egunetan sekulako gosea pasatu nuen". Italiako lagun berriekin Namibiara joan zen, eta hiruko aste egin zituzten Namibiako desertuan: "Sekulako beroa egiten zuen han. Horrez gain, haize bortitza zebilen, sekulako zarata ateratzen zuen haizeak, zoratzeko modukoa zen".

Horrenbesteko beroa egiten zuen, Joxani kanpa dendako barrak urtu egin zitzaizkiola. Italiarrekin asko ikasi zuen, baina Lurmutur Hirira itzuli zirenean, azken parranda egin eta Joxanek bere kontu jarraitzea erabaki zuen. Lesothorako bidea hartu zuen Joxanek, baina astebete baino ez zuen egin han. Lesothon arraza aniztasun txikiagoa dago, gehiengoa beltza da, eta herrialde nahiko atzeratua da. Lesothotik Pretoriarako bidea hartu zuen. Lehenengo gaua Pretoriako tren geltokian pasatu zuen, eta kontatze modukoa izan zen. Kasualitatez, Apartheid-a kendu zuten urteurrena ospatzen zuten, eta jendea erabat mozkortuta zegoen. Beldur apur bat ere pasatu zuen Joxanek.

XABIER URZELAI



Monkey Bay herriko bizilagunak dantzan, Malawin.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarateko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Valero Feok urte askoan argazkilari lanak egin ditu. Egun, Iturbiden bizi da, emaztearekin, eta oso trebea da eskulanak egiten.

“Herritar batzuei, bataio, jaunartze eta ezkontza argazkiak egin dizkiet”

IKER BARANDIARAN

Belber de los Montes (Zamora) jaio zen Valero Feo, baina gaztetan Debagoienara etorri zen; Elman lan egin ondoren argazkilari ibili zen luzaroan.

Zelakoa izan zen zure gaztaroa Zamoran?

1922an jaio nintzen, eta 8 urtekin aita barik geratu nintzen. Irina egiten zuen fabrika batera eraman ninduten lanbidea ikastera, eta fabrikako jabearen etxean bizi izan nintzen. Jabearen alabak irakurtzen, idazten eta zenbatzen erakutsi zidan. Maroto fabrika egin nuen lan, 1943an soldadutza egitera joan nintzen arte, Valladolidera.

Soldadutza bukatu, eta Euskal Herrira etorri zinen.

Aretxabaletan osaba-izebak neuzkan (osaba oraindik bizi da) eta Aretxabaletan lana zegoela esan zidaten. Sasoi hartan, Maroto fabrika itxita zegoen eta Zamoran ez neukan ezer. Horregatik, Aretxabaletara jo nuen. Lehenengo, aroztegi baten egin nuen

lan eta gero, Elman lana eskatu nuen. Errebarbadore lanetan ibili nintzen, 15 urtez. Lucia Zabalo arrasatearrarekin ezkondu nintzen. Nik Luciari gaztelaniaz berba egiten erakutsi nion, baina Luciak niri ez dit euskara erakutsi. (Barreak)

Sasoi hartan argazkilari-tzara zaletu zinen, ezta?

Bai. Elman lanean nenbela, argazkilaritzako urrutiko ikastaro bat egin nuen, eta etxean argazki-laboregari jarri nuen. Los Arcosko lagun batek hango jaietara gonbidatu ninduen; argazki-kamera eraman nuen eta oso argazki politak atera nituen. 16 urtean jarraian hango jaietako argazkiak atera nituen. Gero, argazkiak erakusgai jartzen nituen eta mordo saltzen genituen. Nafarroako beste jai batzuetara ere joan izan naiz: Lizarrara, Allora...

Noiz erabaki zenuen Elma utzi eta argazkilaritzan burubelarri jardutea?

1960an utzi nuen Elma. Hasieran, sei hilabeteko lan-utzialdia eskatu nuen, baina horren ondo-

ren, Elmako lana betiko uztea erabaki nuen. Laso argazki dendako Justo Epelde soldadutza joan zen eta haren ordez kontratatu ninduten. Urte bi egin nituen haiekin lanean.

Zer-nolako argazkiak ateratzen zenituen?

Ezkontzako argazkiak ateratzen nituen. Behin baino gehiagotan Leintz Gatzagara jotzen nuen, motoan. Horrez gain, familia ugaria zutenek laguntzak jasotzen zituzten, eta behin baino gehiagotan, iluntzean -anai-arreba guztiak etxean zeudenean-, argazkiak ateratzera joaten nintzen. Extremadurarrak eta galegoak ziren nire bazkide garrantzitsuenak, euren jaioterrietara bidaltzeko argazki mordo egiten zituztelako. Arrasatear batzuei, bataio, jaunartze eta ezkontzako argazkiak ere egin dizkiet. 1985era arte argazkilari profesional egin nuen lan. Gero, bost urtean, Benidormeko hotel baten harreragile ibili nintzen, eta 1987 eta 1990. urte artean bidaia agentzia batekin gidari lanak egin nituen. Orain, Iturbiden bizi naiz.

Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioaren ikastaroak

Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak doako hainbat ikastaro antolatu ditu datozten egunetarako. Martxoko lehenengo egunetan, *Lan inguruan estresa kontrolatzeko* ikastaroa antolatu dute. Apirilean, ostera, *Zelan jokatu larrialdien aurrean* izenburua duen ikastaroa antolatu dute.

DOAKO IKASTAROAK

Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak martxorako honako ikastaroa antolatu du: *Lan inguruan estresa kontrolatzea. Zaintzailearen zainketa*. Ikastaro horren helburua da zaharrak zaintzen dituzten profesionalen estresa kontrolatzea eta ekiditea. Horrekin batera, estresari aurka egiteko estrategiak ere landuko dituzte. Besteak beste, estresaren aurrean erlaxatzeko teknikak irakatsiko dituzte eta ikastaroa jasotzen dutenek emozioak kontrolatzen

ikasiko dute.

Ikastaro horrek 15 ordu iraungo du eta 10 lagunendako izango da. Martxoaren 3an, 4an, 5ean, 6an eta 7an egingo dute, 15:00etatik 18:00etara, Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak Nafarroa etorbidean duen egoitzan, Saiolango eraikinean.

Apirilean, *Zelan jokatu larrialdien aurrean* izenburua duen ikastaroa egingo dute. Lehen sorospenak eta istripuak saihesteko prebentzio teknikak ikasiko dituzte; etxeko istripuak zelan gertatzen diren ikasiko dute, baita istripu horien aurrean zelan jokatu ere; erredurak, intoxikazioak eta erorketak zelan sendatu ere erakutsiko diete.

Ikastaro horrek hamabost ordu iraungo du eta 10 lagunek eman ahal izango dute izena. Apirilaren 7tik 11ra egingo dute, 15:00etatik 18:00etara. Informazio zabalagoa gura izanez gero, deitu 943 77 16 99 telefonora.



Davidek eta Doloresek, 60 urte ezkondu

Bihar, zapatua, David Arzamendik eta Dolores Saez de Ibarra ezkondu zireneko 60. urteurrena ospatuko dute. 13:00etan, meza izango dute San Juan Bautista elizan. David aspalditik da San Juan Bautista elizako organo jotzaile, eta elizako koruak, besteak beste, Davidek idatzitako *Tedeum Laudamis* eta Juanito anaiak idatzitako *Agur Maria* abestuko ditu. Senitartekoek eta elizako koruko partaide guztiak bazkaria izango dute Etxe-Aundi jatetxean. Zorionak, bikote! /I.B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ad *Ibabe*

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



ARRASATE
Ane Bilbao
Otsailaren 22an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Gantzagako familia.



ARRASATE
Maite Bilbao
Otsailaren 22an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Gantzagako familia.



ARRASATE
Susana Nova
Martxoaren 3an, 28 urte.
Zorionak! Izebaren parte-
tik.



LIZARRA
Amaia Zudaire
Martxoaren 3an, 1 urte.
Zorionak! Aitaitaren eta
amamaren partetik.



ARRASATE
Lara Moto
Martxoaren 2an, 10 urte.
Zorionak! Gurasoen parte-
tik.



ARAMAIO
Ander López
Martxoaren 4an, 10 urte.
Zorionak! Aita, ama, Bin-
gen eta familiakoak.



ARRASATE
Jone Usatorre
Martxoaren 4an, 4 urte.
Zorionak! Sandra, Erika eta
Maria.



ARRASATE
Alaitz Gamito
Otsailaren 28an, 1 urte.
Zorionak! Andoni eta Iker-
ne.



ARRASATE
Marcelino Sanz
Otsailaren 24an, urtebe-
tzea. Zorionak! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Markel Morón
Martxoaren 8an, 5 urte.
Zorionak! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Oscar Lagullón
Otsailaren 27an, 2 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
arriba.



ARRASATE
Maite Lizundia
Martxoaren 2an, 1 urte.
Zorionak! Jone eta Julen.



ARRASATE
Andres Gallastegi
Otsailaren 25ean, 72 urte.
Zorionak! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Leire Lasanta
Otsailaren 28an, 4 urte.
Zorionak! Familiaren parte-
tik.



ARRASATE
Miriam Zeziaga
Martxoaren 4an, 12 urte.
Zorionak! Familiaren parte-
tik.



ARRASATE
Rosarito Zeziaga
Otsailaren 18an, urtebe-
tzea. Zorionak! Etxeko-
ak.



ARRASATE
Felicidad Etxebarria
Martxoaren 1ean, urtebe-
tzea. Zorionak! Mikel,
Oier eta Aritz.



ARRASATE
Xabier Pavón
Martxoaren 3an, 14 urte.
Zorionak! Ikerren eta lehen-
gusu guztien partetik.

Adi!

Argazkiak
emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIOA

Non dago Oteizaren *Arri ernai zaitzalea* (harri babeslea eta zaintzailea) eskultura? Arrastoa: 1974an egin zuen Oteizak eskultura, Markinako harriarekin.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Gurelesa esne osoa
Litroko brika

0,67€ 111 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LIDE ERRARTErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Lide!
Galderen erantzun zuzena:
Cerrajera.

ARRASATEKOHISTORIA

San Frantzisko komentuari nondik norakoak

JON ANDER RAMOS

Eraikina XVII. mendearen lehenengo zatikoa da. Fray Miguel de Aranburu arkitektoak zuzendu zituen komentua egiteko lanak, inguruko beste komentu eta eliza batzuen antzerako estiloarekin. Hori bai, aurreneko kaperak XVI. mendean eraiki zuten.

Oro har, eraikinaren estiloa herrerierra dela esan dezakegu.

Joan Araotz Uriarte arrasatearrari esker sortu zen komentua. Mexikoko Zacatecas herrian aberastu zen gizon hura. 1575ean egin zuen testamentuan adierazi zuen San Frantzisko eliza eraikitzea erabaki zuela.

Aldaketa asko izan ditu komentuak historian. Esate baterako, garai baten nabe bakarrekoa zen arren, gaur egun, hiru nabe ditu.

Aurreko aldean fundatzaileen armarririk daude: Araotzenak eta Uriarterenak, hain zuzen ere.

Erretaula Churrigueresko estilokoa da; hau da, apaindurek garrantzia handia dute. Jakobo Aiesta eta Rafael

Joan Araotz Uriarte arrasatearrari esker sortu zen komentua. Zacatecas herrian aberastu zen gizona

Esteban de Garibaik hasieratik lagundu zuen fundazio horretan, eta artelan ugari eman zituen

Larralde maisu bergarrek egin zuten, 1695ean.

Ezkerraldeko aldarean kristo gurutziltzatua dago, errenazimentu-estilokoa.

Esteban de Garibaik hasieratik lagundu zuen fundazio horretan, eta artelan ugari eman zituen. Bere *Memorietan* dago hori zehaztuta. Horrez gainera, San Frantzisko elizan lurperatzea gura



ARTXIOA

Hiribilduaz kanpo eraiki zuten eta komentua, eliza eta ikastetxea izan da.

zuela adierazi zuen testamentuan, baina ez dakigu zer gertatu zen. 1963an, elizan berrikuntzak egin zituztenean, Arrasateko Udalak Garibairen gorpuzkiak aurkitzeko ikerketa

babestu zuen, baina ez zuten ezer argitzerik lortu.

1840an, Mendizabalen desamortizazioa gertatu zenean, frantziskotarrek alde egin zuten komentutik. Gero,

1954an, berriro bueltatu ziren.

Gaur egun, komentua zena berritzen dabilta. Gero, Arrasateko kultura etxea izango da; besteak beste, Udal Liburutegia ipiniko dute han.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko otsailaren 28a / 55. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Emakumeen Eguna ospatzeko ekimenak

UBANE MADERA

Martxoaren 8a badatorrela-eta, Itur Zuri elkarteak emakumeen aldeko egun berezi hori ospatzeko ekimenak antolatu ditu datozen egunotarako. Gaur, barikua, hasiko dira ekimenak, eta datorren barikuan (hilak 7) bukatuko dituzte, urteroko afariarekin, hain zuzen ere.

Urtero moduan, emakumearen aldeko eguna dela eta, hori gogorarazteko zenbait ekimen antolatu ditu Aramaioko Itur Zuri Emakume Elkarteak. Horrela, bada, gaur, barikua, Palestinaren gaineko hitzaldia izango da, 18:30ean, Aramaioko kultura etxean. Hain zuzen ere, Komite Internazionalistetako kide Amaia Arrizabalaga arrasatearrak emango du Palestinako egoera

latzaren berri.

Gero, martitzenean segituko dute ekitaldiek. Egun horretan Gozogintza ikastaroa egingo dute eskolako jangelan. Itziar Aspe sukaldari aramaioarrak pare bat postre egingo ditu, jendeari erakusteko, eta, jakina, gero guztien artean probatzeko. 18:30ean izango da ikastaroa.

BINGOA ETA AFARIA

Eguenean, berriz, filma emango dute kultura etxean (filma oraindik zehaztu barik dute). Baina lehenago, kafea hartzeko aukera egongo da. Hori guztiori 18:30ean hasiko da.

Eta, ekimenekin bukatzeko, martxoaren 7an, barikua, ohiko afaria egingo dute. San Martin Eskolako jangelan izango da, 20:30ak inguruan. Edozelan ere, hori baino lehen, bingoa antolatu du Itur Zuri elkarteak. Hortaz, bingoan parte hartu gura duenak 19:00etan egon beharko du eskolako jangelan.

Esan beharrik ez dago emakumearen aldeko egunean antolatutako ekimenak izan arren edozeinek har dezakeela parte gura duen tokian. Are gehiago, Itur Zuri elkarteak aramaioar guztiak gonbidatzen ditu ekimenean parte hartzera.



ARTXIBOA

Datorren barikuan, hilaren 7an, bingoa eta afaria egongo dira, gura duenarendako.

Lan gutxiago baina kalitate onekoak Ipuin Lehiaketan

Zapatuan egin zuten Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako II. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa. Iaz baino lan gutxiago aurkeztu dituzte, baina, epaimahai-kideen esanetan, idatzien kalitateak ez du behera egin. Hain justu ere, txikienen mailakoek erakutsi dute aurten kalitaterik onena.

Hori bai, emateko zeuden sei sarietatik bost bakarrik eman zituen epaimahaiak. Izan ere, DBHko lehenengo mailakoek aurkeztutako lanek ez zuten oso maila onik eta, horregatik, hutsik utzi dute maila horretako lehenengo saria.

Rosa Mondragónek, Divina

Arriolabengoak eta Xabier Agirrek osatu dute epaimahaia.

IRABAZLEAK

Kontuak kontu, beste bost sari eman zituen Txirritola Euskara Elkarteak: Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoan, Ane Herizek irabazi zuen; eta Nerea Azurmendi geratu zen bigarren.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, berriz, Beatriz Azurmendik irabazi zuen eta Igor Oianguerenek eskuratu zuen bigarren saria. Eta, esan bezala, DBHko lehenengo ziklokoen artean ez zen aurreneko saririk izan; bai, ordea, bigarrena: Iraia Bei-

tiak irabazi zuen hori.


BALORAZIOA

Txirritola Euskara Elkarteak pozik dago Ipuin Lehiaketan lortutako parte-hartzearekin eta emaitzeekin, baina aurrera begira aldatetako egitekotan dabil. Izan ere, orain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara artekoek bakarrik aurkez ditzakete lehiaketarako ipuinak; horren ondorioz, normalean antzerako adineko jende gaztea aurkeztu ohi da. Txirritola elkarteak, berriz, nagusiagoei ere eman gura die Ipuin Lehiaketan parte hartzeko aukera. Datorren urtean izango da hori.



Berriro ere argi barik, haizearengatik

Berriro ere haizea protagonista izan da oraingo astean Aramaion. Astelehen gauean, oso haize zakar eta bortitza ibili zen, eta kalteak egin zituen herrian. Horrela, martitzenean 15 orduz argi barik geratu zen Aramaio. Berriro ere Gellao inguruan pinuren bat bota zuen haizeak eta pinuak, era berean, goi tentsio hariak bota zituen. Aurrekoan moduan, oraingoan ere esan beharra dago gertatukoaren arduraduna Iberdrola dela, eta ez Udala. Horrez gainera, Kurtzetarako bidea ere itxita egon zen goizean, han ere beste zuhaitz bat bota zuen-eta haize zakarrak.



USO AGRIFE

Sari banaketa zapatu eguerdian izan zen, kultura etxean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:00

OHARRA: Izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Eta bi izartxo dutenetan, auzoetara joateko garraioa izango da. Eskaeraren arabera autobusa erabili gura duenak, bezperan deitu beharko du honako zenbakira: 629 54 59 23

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Nesken taldeak, geroago eta hobeto jokatzen ibili arren, ez du irabazterik lortu Lan eta Jolas taldearen aurka; izan ere, 4-3 galdu zuten joan den asteburuan. Kadete mailako mutilak, ordea, garaipenarekin itzuli ziren herrira. 3-4 irabazi zioten Lan eta Jolasi. Bihar, zapatua, Bañerako neskek Club Deportivo Aurrera taldea izango dute aurrez aurre, 11:00etan, Aldabe kiroldegian. Kadete mailako mutilek, berriz, atsedenaldia izango dute. Eta gazte mailakoek Urgatzi taldearen kontra jokatu beharko dute, 11:30ean, Gasteizko Europa kiroldegian. Esan beharra dago, era berean, oraingo asteburuko partidua ligako azkena izango dela gazte mailako mutilendako. Partidu horren arabera, azkeneko lekuan edo azkenurrekoan geratuko dira. Bestalde, hemendik aurrera Kopa Txapelketan hasiko dira jokatzen.

ZINEA

Dos colgaos en Chicago filma emango dute domekan.

JAIK

Barikuan, zapatuan eta martitzenean, Aratusteak Aramaion

Gaur (barikua) hasi eta datorren martitzenera arte Aratusteekin lotutako ospakizunak izango dira Aramaion. Gaur, eskolako Haur Hezkuntzakoak irtengo dira mozo-rrotuta. Eta bihar, Mozorro Lehia-keta izango da. 17:30ean, kalejira irtengo da kiroldegitik eta 18:00etan sari banaketa izango da plazan. Horren ostean, txokolata banatuko dute herritarren artean.

Eta martitzenean, berrito ere gaztetxoenen txanda izango da. 14:00-14:30ak bitartean mozo-roa jantziko dute umeek eskolan eta gero, trikilariek lagunduta kalejiran joango dira plazara. Han jolasak eta dantzak egingo dituzte eta gero, berrito ere eskolara bueltatuko dira; izan ere, 15:30ean, txokolata emango diete. Horrez gain, 17:00etan, txotxongiloak izango dira plazan. *Nori berea, itsasaren legea* izeneko ikuskizuna egingo dute. Bereziki, 3 eta 10 urte bitarteko umei dago zuzenduta txotxongiloen saioa.



BOTEPRONTOAN/ Gorka Arias Elexalde · Anboto tabernakoa

“Inportanteena da jendeari zerbait desberdina ikusteko aukera ematen zaiola”

Gorka Arias Elexalde da oraingo asteko gure berba-laguna. Anboto tabernaren gidaria da joan den uztailaz gerotik. Eta igarri da, bai, haren etorrera. Besteak beste, tabernan kontzertuak antolatzen hasi da, eta horrek eragin du aldaketarik, batez ere, Bizente Goikoetxea plazako giroan:

Lehenago ere tabernari izandakoa zara?

Ez, sekula ibili barik nengoen. **Eta zelatan etorri zara tabernara?**

Aspalditik buruan sartuta neukan taberna baten lan egin gura nuela; akaso, herrian girorik ez zegoela ikusten nuelako-edo. Pentsatzen nuen neuk taberna bat hartuz gero jakingo nukeela zer falta den, jendeak zer gura duen. Azken baten, jendeak nik gura nuela gura zuen. Eta ikusten dut jendea gustura dagoela orain: musikarengatik...

Zeu ere gustura zaude?

Apur bat desberdina izan da. Hau da, horrelako negozio baten hasten zarenean, hasieran ordu asko sartu behar izaten dira; eta alde horretatik apur bat estututa ibili naiz. Baina jende askok esan dit pozik dagoela; hortaz... Aldaketa asko ere egin ditugu.



“Uste nuen neuk taberna bat hartuz gero jakingo nukeela zer falta den, jendeak zer gura duen”

Orain, adibidez, erakusketak egiten hasi gara.

Bai, ala?

Bai. Zapatuan ekarri zuten. Juan González Cuesta bergararrak egindako margolanak dira. Hilabetez egongo dira hemen, gura duenak ikus eta eros ditzan. Eta gero, beste margolariren bat ekarriko dugu, edo eskulturagileren bat...

Hortaz, zuretako taberna kultura bultzatzeko beste modu bat da, ezta?

Bai. Aramaion beti egin izan dira gauzak, baina, bestelako herri txikietan moduan, gauza kulturalak jaietan eta egun zehatzetan bakarrik egoten dira. Eta hau beste zerbait da. Jendeak gauza berriak ikusten ditu... Eta hori da inportanteena, jendeari gauzak ikusteko aukera ematen zaiola.

Eta, horrez gain, artelanak

eta horrelakoak egiten dituenak ere hementxe du erakusteko lekua. Jende guztia ezin da galerietan-eta ibili, eta horien lanak ikusteko lekuak egotea ere ondo dago.

Kontzertuekin ere taberna ezagunagoa egingo zen, ezta?

Bai, jendeak berba egiten du... Arrasate ere oso gertu dago eta handik ere etortzen hasi da jendea. Jende askok du Anboto tabernaren berri, eta seguru asko kontzertuei esker izango da.

Eta zelako giroa sortu da?

Jende gehiago etortzen da; lehen, plaza inguruan ez zen jende askorik ibiltzen eta orain, gehiago dabil. Gauean ere oso giro ona egoten da. Adibidez, joan den asteburua gogor samarra izan da...

Zer edaten da gehiago, kubatak ala kalimotxoak?

Kalimotxoak edaten dira, baina gutxi. Gehien garagardoa edaten da, eta kubatak eta horrelakoak gauean edo asteburuan.

Zela definituko zenuke Anboto?

Niretako negozio bat da, baina jendeak gura duen moduan ipintzen ahalegindu naiz. Joko ere ipini ditut (billarra), kontzertuak... Eta seguru apurka-apurka gauza gehiago sortuko direla.

KIROLA

Paleta Txapelketaren finalerdietarako sailkapena jokoan dago

Dagoeneko Paleta Txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu dute, eta, geroago eta gertuago dago txapelketako finalerdia. Hain zuzen ere, dagoeneko Pérez eta Urrak osatutako bikoteak lortu du sailkatzea, orain arteko partidua guztiak irabazi dituzte-eta. Jokatzen ari diren beste lau bikote hiru partidua irabazi dituzte: Garaitak eta Floresek; Barandiaran II.ak eta Errastik; Abarrategik eta Ballinak; eta Barandiaran I.ak eta Oiangurennek.

Eta Arriolabengoak eta Azurmendik bi partidua irabazi dituzte.

Finalerdietarako bi aste gertzen dira, eta guztira lau bikote sailkatu behar dira. Emaitzak ikusita, hiru eta bi partidua irabazi dituzten bikoteek dituzte sailkatzeko aukerarik gehien.

Oraingo asteburuan ere partidua jokatuko dituzte kiroldegian, zapatu eta domeka goizean.


ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko
lehenengo
udalbatzarra

Laster hauteskundeak datozela eta, historian atzera egin, eta Arrasaten sortu zen lehenengo udalbatzarra ekarri dugu atal honetara. Frankismoaren ostean egin ziren lehenengo hauteskunde demokratikoen ondoren sortutako udalbatzarra da. Hain zuzen ere, gero Euskal Herriko lehendakari izango zen Jose Antonio Ardantza izan zen udalbatzar hartako alkate. 1979ko apirilaren 3an izan ziren hauteskundeak. 18.852 mondragoetar zeuden errolatuta eta %38,4 abstenitu egin ziren. Hortaz, 11.369 lagunek hartu zuten parte bozketan. Horrela, EAJk 11 zinegotzi lortu zituen, HBk lau, PSOEk hiru, Euskadiko Ezkerrak bi, EMK-k bat eta LKIk ez zuen bat ere lortu.

Gogoratu beharra dago garai hartan ez zela Eusko Alkartasuna existitzen, ezta PP eta EB ere. Bai, ordea, EE (Euskadiko Ezkerra), PC (Partido Comunista), AP (Alianza Popular), UCD (Unión Centro Democrático), EMK (Euskadiko Mugimendu Komunista) eta LKI (Liga Komunista Iraultzailea).

Hauek agertzen dira argazkian,



ezkerretik hasita: Juan Mari Murua-mendiaraz (EAJ), Mikel Larunbe (EE), Juan Cruz Leibar (EAJ), Eukeni Olabarrieta (HB), Fernando Kristobal (EAJ), Alex Goirizelaia (HB), Okina (EAJ), Jose Antonio Goitia (EAJ), Jose Antonio Ardantza (EAJ), Arantza

Akizu (EAJ), Arroitia (EAJ), Benitez (PSOE), Mendiaratz (PSOE), Lana (PSOE), Jose Cruz Murgia (EAJ), Jose Antonio Auzmendi (EAJ) eta Mari Karmen Goñi (EAJ). Horrez gain, honako hauek falta dira: Jose Ignacio Etxebeste (EAJ), Kepa Ormaetxea (HB),

Gregorio Etxabe (HB), Zubiaga (EE) eta Jose Ignacio Iartza Mendizabal (EMK).

Argazkia: Arrasateko Udala

Informazioa: Jose Mari Urizar Ametzu, Mari Jose Aspe eta Alberto Encinas

Urtea: 1979

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Migeli
eskainitako
eliza

Garagartzako eliza San Migeli eskainitakoa da. Datu historikorik ez daukagun arren, datu arkitektonikoen arabera, elizaren kanpoaldean erretore etxearekin bat eginda dagoen ate erromanikoa ikus daiteke. Barruko aldean, berriz, XIII. mendeko bataio ponte dago, erromaniko garaikoa. Erretaula barroko garaikoa da, XVII. mendekoa, hain zuzen ere.



≈ 1970

Garagartzako elizaren inguruak asko aldatu dira. Argi dago egurra orain baino askoz sarriago erabiltzen zutela lehen.



2003

Elizaren ondoan dagoen eraikina berrituta dago eta, horrez gainera, San Miguel elizaren ondoan jatetxe bat dago.

**PUB
HAIZEA**



AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



2003-2004



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73



Haur Hezkuntza
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza
2-6 urte



DBH

eredua **D**

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

ARRANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Igeltzaritza



Iztue Irurzun

Igeltzaritza orokorra

Etxeen berrikuntzak

Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • **ARRASATE**

Tel./Faxa: 943 79 11 35

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Loramendi 7, 2 behea

Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak

Gasa • Berogailuak

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Giltzak



- Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa
- Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak
- Larruzko gauzak
- Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu nahi

baduzu, deitu

943 71 23 91

telefonora

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63